## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 3516

EBAZPENA, 2007ko ekainaren 6koa, Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearena. Honen bitartez, 2007ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal merkatuei zuzendutako diru laguntzen deialdia argitaratzen da. Merkatariek berek edo beren erakunde ordezkariek bultzatuta merkatu horietan egiturazko aldaketak egitearren emango dira diru laguntzak.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 25eko Aginduaz, (EHAA, 137. zenbakia, 2003ko uztailaren 14koa) Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal merkatuei zuzendutako diru laguntzen emakida arautu da, merkatu horietan egiturazko aldaketak egin ditzaten, merkatariek berek edo beren erakunde ordezkariek bultzatuta.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko ekainaren 16ko Aginduak aldatu du agindu hori.

Laguntza horiek ematera bideratutako ekonomia baliabideek iturburu hau dute: 2007ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu partidak (ekitaldi honetarako, abenduaren 28ko 9/2006 Legeaz arautuak).

2003ko ekainaren 25eko Aginduko 14. artikuluan ezarritakoari jarraituz, egoki da han ezarritako laguntzetarako 2007.eko ekitaldiko deialdia egitea, beharrezko arauak emanez.

Horregatik guztiagatik, agindu horretako 14. artikuluan emandako ahalmenaz baliatuz,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Ebazpen honen xede da, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 25eko Aginduan (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko ekainaren 16ko Aginduak aldatua) araututako laguntzen 2007. ekitaldirako deialdia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal merkatuei zuzendutako diru laguntzak dira, merkatariek berek edo beren erakunde ordezkariek bultzatuta merkatu horietan egiturazko aldaketak egitekoak.

Xede horretara, guztira 300.000,00 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2006. urterako Aurrekontu Orokorretan gai horretarako ezarritako aurrekontu kredituan ageri denez.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 3516

RESOLUCIÓN de 6 de junio de 2007, del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de ayudas económicas destinadas a los Mercados Municipales Minoristas del País Vasco para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por los propios comerciantes o sus entidades representativas para el ejercicio 2007.

La Orden de 25 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, (BOPV n.º 137 de 14 de julio de 2003) desarrolla el programa de ayudas destinadas a los Mercados Municipales Minoristas de la CAPV para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por los propios comerciantes o sus entidades representativas.

Esta Orden ha sido modificada por la Orden de 16 de junio de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2007, cuya regulación, para el presente ejercicio, se establece en la Ley 9/2006, de 28 de diciembre.

De conformidad a lo establecido en el artículo 14 de la Orden de 25 de junio de 2003, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2007, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el mencionado artículo 14 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Es objeto de la presente resolución, la convocatoria para el ejercicio 2007 de las ayudas previstas en la Orden de 25 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por Orden de 16 de junio de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, destinadas a los Mercados Municipales Minoristas de la CAPV para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por los propios comerciantes o sus entidades representativas.

Para este fin se destinará un total de 300.000,00 euros según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2007.

Deialdi honen barruan eskainiko diren laguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du gainditu artikulu honetan ezarritako kopurua, ez eta artikulua eguneratzean ezartzen dena ere, indarrean dagoen legedian xedatutako kreditu loturaren araudiari nahiz aurrekontuak aldatzeko araudiari jarraikiz. Ez da bidezkoa izango, beraz, kopuru hori agortzean laguntza gehiago eskaintzea; hala, bada, une horretatik aurrera, bertan behera geratuko da xedapen honen eragina. Bi egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri zabalduko da, Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen ebazpenaren bidez.

*2. artikulua.–* Betekizunak.

Eskatzaileek Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 25eko Aginduan (Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko ekainaren 16ko Aginduak aldatua) ezarritako laguntzak jaso ahal izateko, agindu horretako 4. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

*3. artikulua.–* Eskabideak eta epea.

1.– Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lurralde bulegoetan daude eskuragarri eskaera eredua eta formularioak, bai eta Interneten ere, <www.euskadi.net/comercio> helbidean.

2.– Eskabideak eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari zuzendu beharko dizkiote. Eskabide eta agiri horiek lurralde historikoko Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde bulegoan aurkeztu ahal izango dituzte; edo, bestela, 30/1992 Legean (Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 26koa) zehaztutako lekuetan.

3.– Deialdiaren ebazpen hau argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2007ko uztailaren 30ean amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean deialdi ebazpen hau.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari aurkeztuta. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 6a.

Merkataritza, Kontsumo eta Industria
Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. De producirse alguna de dichas circunstancias, se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial.

*Artículo 2.–* Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 25 de junio de 2003, modificada por Orden de 16 de junio de 2006, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 4 de la Orden de referencia.

*Artículo 3.–* Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet: www.euskadi.net/comercio.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria se dirigirán a la Dirección de Comercio del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de publicación de la presente Resolución y finalizará el 30 de julio de 2007.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** La presente resolución de convocatoria surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.–*** Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de junio de 2007.

El Viceconsejero de Comercio, Consumo
y Seguridad Industrial,
RODRIGO GARCÍA AZURMENDI.